

## **BIOGRAFIA MAKURRAK**

Erasotzaileak ezagutzuz haien erasoak hobe ulertu ditzakegu. Venezuela erasotzen ari diren pertsonen artean, nabarmenenak Trumpen ekipoaren parte dira eta haien profil ultraerreakzionarioek antzekotasun handiak dituzte. Beharrezkoa da, hala ere, bakoitzaren biografia makurraren inguruko zertzelada batzuk ezagutzea.

**Mike Pence**, Estatu batuetako presidente-ordea. Ultraerlijiosoa. Hau esan zuen duela gutxi Miami eliza batean emandako diskurtsoan: “beharrezkoa da Venezuela, Kuba eta Nikaraguako gobernuak ezabatzea; bukatu da negoziazioaren garaia”.

**Mike Pompeo**, enpresaburu eta politikaria. CIAko zuzendaria izan zen, eta gaur egun Estatu Idazkaria da. Etengabeko bidaiaria Lationamerikan barrena, Kontinente honetako gobernu eta armadak Venezuelaren kontra kohesionatu nahian.

**John Bolton**, Lehendakartzaren segurtasun Kontseilaria. 2003an Irak inbaditzeko oinarri izan ziren “suntsipen masiboko gezurren” sortzaileetako bat. Inoiz ez da damutu sarraski hartaz.

**Mauricio Claver-Carone**, Nazio Segurtasun Kontseiluko Mendebaldeko Hemisferioko Zuzendaria da. Floridako Senatari den Marco Rubiorekin elkarlanean, Venezuelaren kontrako azken eraso honen finantziazioa eta antolakuntza zuzena diseinatu eta kudeatzen ditu.

**Elliott Abrams**, eskusartze eta guerra zikinetan espezialista. Reaganek fitxatu zuen 1981ean Estatu Departamentuan lan egiteko. Nikaraguako Kontraren sortzaileetako bat da. 1991an kondenatua izan zen Kongresuan Iran-Kontra eskandaluaren inguruan gezurra esateagatik, baina elkarlanean aritzeko prestutasuna erakutsi eta ez zuen kartzelan egun bakar bat ere pasa. George W. Bushen indultua eman zion 1992ko Eguberrian. El Salvadorreko gerran, El Mozoteko sarraskia (1981eko abenduan) “propaganda komunista” zela esan zuen: Atlacatl batailoiak 500 salvadoreño hil zituen, haurrak eta emakumeak barne. Gutemalako gerran ere parte-hartze zuzena eduki zuen. Sionista fanatikoa, Bushen administrazioaren esfortzuak gidatu zituen Palestinan batasun nazionalako gobernu bat osa zedin ekiditeko. Ez da bere iraganaz damutzen, eta Venezuelaren aurkako egungo erasoetan ahalik eta azkarren parte-hartzeko interesa duela argi erakutsi du.

Askapena